

**HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKADIKO TOKI ENTITATEEN
TXOSTENARI BURUZKOA, 2013**

**EUSKAL TOKI ENTITATEETAKO KONTUETAN LEGEZKOTASUNA
NEURRI HANDIAN BETE DA**

**2013an euskal udaletan biztanleko gastuak behera egin du eta biztanleko batez
besteko gastuari bere horretan eutsi zaio.**

Joan den martxoaren 17an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoak aho batez onetsi zuten Euskadiko Toki Entitateen 2013ko ekitaldiko Kontuei buruzko txostena.

38 udaletan eta udalaz gaindiko 7 entitatetan ez da hutsik azaleratu ez Kontu Orokorra onartzeko epeetan, ez eduki formal eta kualitatiboan ere.

URTEKO KONTUEN EDUKIA

HKEEk EAEko 251 udalen eta udalaz gaindiko 64 entitateen Kontu Orokorren eduki formala balio-neurtu du eta informatzeko betebeharrari dagokionez, legeria zein mailatan bete den egiaztatu du. Gainera, aurrekontuko likidazioek eta galera-irabazien balantze eta kontuek ezargarria den araudiak agintzen duen informazio guztia besarkatzen dutela eta agiri horiek elkarrekiko koherente direla egiaztatu du.

44 udaletan eta udalaz gaindiko 19 entitatetan ondoko **agirietakoren bat ez dela** Kontu orokorrean **jaso** ikusi da: finantzaketa taula, udal zorrari buruzko informazioa eta/edo oroitidazkia. Hiru udalaz gaindiko entitatereen urteko kontuetan, gainera, ez dago ez balantzerik ez emaitzen konturik, ez eta diruzaintza konturik ere.

20 udaletan eta udalaz gaindiko 10 entitatetan kontu orokorraren edukiak **aurrekontuko alderdietan akatsak** ditu, batik bat, aurrekontuko emaitza edo diruzaintza geldikina oker kalkulatu izana.

Ondare kontabilitateari dagokionez, **akatsak** azaleratu dira 92 udaletan eta udalaz gaindiko 15 erakundetan; horien artean ohikoenak dira amortizazioa ez jasotzea, edota zorraren eranskinaren eta balantzearen arteko bateratasun eza.

Akats hauek batik bat 5.000 biztanletik beherako udaletan gertatzen dira.

ONESPEN EPEAK

HKEEK atzerapenak izan direla ikusi du urteko aurrekontua onestean (148 udaletan eta udalaz gaindiko 31 erakundetan); aurrekontua kitatzean (28 udaletan eta udalaz gaindiko 11 entitatetan) eta kontu orokorra onartzean (63 udaletan eta udalaz gaindiko 16 erakundetan).

22 udalek eta udalaz gaindiko 4 entitatek aurreko ekitaldiko aurrekontuak luzatu zituzten. Ez dago jaso Kontu Orokorra onartu denik 12 udaletan eta udalaz gaindiko 9 erakundetan.

TOKIKO SEKTOREAREN FINANTZA EGOERA

2011ko abenduaren 31n, 52 udalek eta udalaz gaindiko 2 entitatek diruzaintza geldikin negatiboa zuten (defizita). Horietatik 25 udalek eta udalaz gaindiko entitate batek defizit hau 2012 eta 2013ko ekitaldietan berdindu dute, bai ekitaldi hauetako gastua murriztuz ekitaldi hauetan geldikin positiboak eskuratuta, bai maileguak kontratatuz. Gainerakoek, 27 udal eta udalaz gaindiko entitate lek, 2013ko abenduaren 31n defizit egoerari eusten diote.

Euskal **udalen** autonomia fiskalak (sarrera guztien gainean zerga zuzen, zeharkako, tasa eta bestelako sarrerak) 2013an % 41,15 egin du, aurreko ekitaldian baino % 2,5 gehiago. **Biztanleko batez besteko gastua** batez beste 1.237 eurorena izan da (1.245, 2012an). **Biztanleko batez besteko zorpetzea**, berriz, 249 eurorena da (2012an baino % 15,3 txikiagoa); horrek udal sarrera arrunten % 23 egiten du. Guztira 79 udalek ez dute zorpetzerik eta 24 udalek, berriz, biztanleko baliatutako zorraren batez bestekoa nabarmen gainditzen dute.

Udalaz gaindiko erakundeei dagokien **zorpetzeak** 587 milioi euro egiten ditu (2012an baino % 3,5 gutxiago); zorpetze horretatik % 85 Bizkaiko Garraio Partzuergoaren jabetzakoa da. Diru-laguntzetatik eskuratutako diru-sarrerak sarrera guztien gainean % 41,69 egiten dute.

KONTUAK EZ AITORTZEA

Txostenak adierazi du Gaintza eta Ondarroako Udalek eta udalaz gaindiko beste 5 entitatek (Kuartangoko Ur Partzuergoak, Iruña Okako Ur Partzuergoak Haranako Ur Partzuergoak, Debade Udal Euskaltegien Mankomunitateak eta Uli Mankomunitateak) ez dutela 2013ko ekitaldiari dagokion kontu orokorra igorri.